



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko azaroaren 7ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko azaroaren zazpian, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak :** CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : DACHAGUER Peio.

Deialdiaren eguna : 2023ko azaroaren 3a

Afitzatze eguna : 2023ko azaroaren 3a

### **8. ERABAKIA: ENPLEGU SORTZEA:** **AMA-ESKOLETAN BEREZITUTAKO LURRALDE AGENTEA (ABLA)**

*(4.1.1 nomenklatura)*

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio denbora ez osoko ABLA enplegu iraunkor baten sortzea.

Asteko batezbesteko lanaldia 24 orenkoa litzateke.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Lanbidea	Dago(z)kion gradua(k)	Kategoria hierarkikoa	Aurrekontuko zenbatekoa	Asteko batezbesteko lan denbora	Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa
ABLA	- Teknikari laguntzailea - 2. klaseko teknikari laguntzaile nagusia - 1. klaseko teknikari laguntzaile nagusia	C	1	24 oren asteen	Frantziako funtzio publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 6 artikulua

	Animazio laguntzailea - 2. klaseko animazio laguntzaile nagusia - 1. klaseko animazio laguntzaile nagusia  - 2. klaseko ABLA - 1. klaseko ABLA nagusia				
--	---	--	--	--	--

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- - funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzten,
- - baimen berezi gisa, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 6° artikulua arabera, kontratupeko langilea izan daiteke. Honela 2000 biztanletik beherako herrietan, eta 10 000 biztanletik beherako herri elkargoetan kontratupeko langileak kontratatu daitezke enplegu iraunkorretan, enplegu horien sortzea edo desagertzea aginte baten esku direnean eta tokiko kolektibitateari behartzen zaizkionean,

Lan kontratuak, gehienez behin errepika daitekeen 3 urteko iraupenekoak izan behar dira, hots gehienez 6 urte segidan. 6 urte horien buruan kontratua luzatzen bada, orduan erabaki arin batez mugagabea bilakatuko da.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 368 eta 486 arteko indize gordina izanen luke.

Hala balitz, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, organo erabakitzaileak erabaki bezala.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak,

**ERABAKI DU** - 2024ko urtarrilaren 1etik, denbora ez osoko ABLA enplegu iraunkor baten sortzea, batez beste astean 24 orenekoa

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,

- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 432 arteko indize gordina izanen lukeela.

**BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

**ONARTU DU** Auzapezaren proposamen guztiak,

**ZEHAZTU DU** kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko azaroaren 7an

Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/11/14an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/11/14an.